

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 366/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko eta Covid-19ak kaltetutako kultura eta sormen sektorearen susperraldi ekonomikorako aparteko laguntzen deialdiari

Maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakiaren bidez, Covid-19aren ondorioak direla eta Arabako Foru Aldundiaren Arabako ekonomia suspertzeko A Plana onetsi zen.

Plana 10 bloke handitan egituratzen da, eta horietatik 50 neurri zehatz hedatzen dira, egoeraren arabera, finantza, zerga, aurrekontu eta sektore arloetan.

A Planako 10. blokeak ("Arabatik Sortzeko"), honako jarduketa hauek jasotzen ditu "Kultura sektorea suspertzeko plana" izeneko 10.1 puntuaren eta "egoera berriko ekitaldiak garatzeko plana" izeneko 10.2 puntuaren barruan:

1. Enpresen eta autonomoen gastu arrunterako dirulaguntzen lerroak.
2. Kultura munduko enpresen, autonomoen eta toki erakundeen ekipamenduetan inbertitzeko laguntza lerroa.
3. Kultura proiektuak eta ekitaldiak birdiseinatzeko laguntza, errealitate berrira eta musikarako eta arte eszenikoetarako kanpoko ekitaldiak muntatzeko eta ekoizteko azpiegiturretara egokitzeak.

Covid-19aren ondorioen ondorio ekonomikoak zailak izaten ari dira sektore guztientzat, bereziki Arabako kultura eta sormen sektorean, jarduera geldiarazi baitu. Azpimarratu behar da enpresa sare hori nagusiki profesional autonomoek eta ETEek osatzen dutela, eta, kasu gehienetan, egitura txikia dute.

Arabako Foru Aldundiaren asmoa da egoera horiei estaldura ematea, pandemiaren aldian jarduera eten duten ala ez kontuan hartuta, zuzeneko edo zeharkako galera ekonomikoaren egoera arintzeko eta Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko kultura sektoreko profesionalen eta enpresen jarduerari eusten sorosteko emanez.

Arabako Foru Aldundiak, azaroaren 12ko Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.), Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri orokor arautzaileak onartu zituen.

Oinarri horiek onartzearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik handiena eskaintzeko eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, nahitaezkoa da Arabako Lurralde Historikoko kultura eta sormen sektorearen eta Trebiñuko enklabearen susperraldi ekonomikorako ezohiko laguntzen deialdia egitea, honako Covid-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-alarma deklaratu ondoren.

Halaber, aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko kultura- eta sormen-sektorearen susperraldi ekonomikorako ezohiko laguntzen deialdia onartzea, Covid-19aren pandemiaren ondoriozko alarma sanitarioa deklaratu ondoren, gehienez seiehun eta hogeita hamalau mila eta zortziehun euroko zuzkidurarekin (634.800,00 euro). Hori guztia Foru Gobernuaren Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. z.k.); izan ere, dekretu horrek onartu zituen Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen oinarri arautzaile orokorrak.

Bigarrena. Erabaki honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko partida hauen kargura ordainduko dira:

– 70108.7200.4790001 “gastu finko eta estrukturalen A plangintzaren laguntzak”: 334.800 euro, 105.2756 erreferentzia.

– 70108.7200.7700001 “A Planaren laguntzak inbertsioetarako”: 250.000 euro, 105.2757 erreferentzia.

– 70108.7200.4790002 “A Planeko laguntzak, kultura programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamendu gastuak planifikatzeko”: 50.000 euro, 105.2758 erreferentzia.

Hirugarrena. Kultura Zuzendaritzaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko ebazpena; horretarako hiru hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela uler dezakete.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

Seigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera dagoen II. eranskinaren edukia bertan sartuz.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I Eranskina

Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean kultura eta sormen sektorearen susperraldi ekonomikorako ezohiko laguntzen deialdia, Covid-19aren pandemiaren ondoriozko osasun alarma deklaratu ondoren

I kapitulua. Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea hiru dirulaguntza mota finantzatzea da:

A) Kultura eta sormen sektorean jarduera ekonomikoa erregularatasunez egiten duten profesional autonomoentzako, ETEentzako eta mikroenpresa kategorian duten elkarreentzako gastu arrunta.

B) Kultura eta sormen sektorean jarduera ekonomikoa erregularatasunez egiten duten profesional autonomoentzako, ETEentzako eta mikroenpresa kategorian duten elkarreentzako inbertsioak.

C) Kulturaren eta sormenaren sektoreko profesional autonomoek eta ETEek, kulturaren arloko elkarreentzako eta fundazioek eta administrazio publikoek sustatutako proiektuak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamenduen arloko gastuak.

Kontuan hartu beharra dago Arabako Foru Aldundiaren Arabako Ekonomia Suspertzeko Planean onartutakoa, betiere Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan (haren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren).

Deialdi honetan xedatutako ondorioetarako, jarduera ekonomiko, kultural eta sortzailatzat joko da sormen, arte edo kultura ondarearen eremuko adierazpenei lotutako produktuak edo zerbitzuak sortzea, izaera profesional eta irabazizko izaerarekin, norgehiagoka araubideko dirulaguntzak emanez.

2. artikulua. Emate prozedura

Programa Covid-19 koronabirusaren ondoriozko krisiak eragindako kultura sektoreko pertsona eta erakundeei zuzenduta dago, eta, beraz, laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka da, hainbanaketa modalitatean; hau da, onargarriak diren laguntza eskaera guztiei erantzuteko aurrekontu erabilgarritasunik ez badago, eta dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen arabera, hainbanaketa koefizientea kalkulatu da, betiere dirulaguntzaren modalitate bakoitzaren guztizko aurrekontuaren arabera.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbatekoa

3.1. Deialdiaren zenbateko osoa 634.800 eurokoa da.

3.2. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak gastuetarako aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 70108.7200.4790001 "A planaren laguntzak, gastu finkoak eta egiturazkoak": 334.800 euro.

– 70108.7200.7700001 "A Planaren laguntzak, inbertsioak": 250.000 euro.

– 70108.7200.4790002 "A Planeko laguntzak, kultura programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamendu gastuak planifikatzeko": 50.000 euro.

3.3. Saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren. Horretarako ebazpena emango du, deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

1. Laguntza hauen erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabeen izan beharko dute egoitza soziala eta fiskala.

2. Honako hauek hartuko dira erakunde onuraduntzat:

a) Gastu arrunterako laguntzen eta ondasun inbentariagarrietan inbertitzeko laguntzen kasuan, onuraduntzat hartuko dira kultura eta sormen sektoreko profesional autonomoak/autonomoak, ETEak eta mikroenpresa kategorian duten elkarteak, honako tipologia hauetakoren batean sartzen direnak: arte eszenikoak (antzerkia, dantza, zirkua, musika); diseinu grafikoa; edizioa; arte bisualak; ilustrazioa; argazkia; kultura ondasunak zaharberritzea; arkeologia; arte galeriak; kultura kudeaketa, bitartekaritza eta aholkularitza; sorkuntza fabrikak; bibliotekonomia eta artxibo jarduera.

Eta kultura sektorekoak ez diren beste enpresa batzuk, beren jardueraren ehuneko 60 kultura eta sormen jardueretarako edo kultura ondareko proiektuetarako dela dioen zinpeko deklarazioa aurkezten badute.

Balorazio batzordeak gaitasun teknikoa egiaztatzeko eskatu ahal izango du, azken hiru urteetan kultura edo sormen jarduerekin edo kultura ondareko proiektuekin zuzenean lotuta egindako jardueren zerrenda aurkeztuz, lana norentzat egin duten eta zenbatekoak zehaztuz.

b) Kultura jarduerak, programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamenduen arloko gastuei aurre egiteko laguntzen kasuan, onuradun izango dira profesional autonomoak, kultura eta sormen sektoreko ETEak, kulturaren arloko elkarte eta fundazioak, eta Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeen administrazio publikoak, baldin eta berriro diseinatutako eta premia berrietara egokitutako kultura proiektu bat aurkezten badute Covid-19aren ondorioz.

3. Berriaz baztertuta geratzen dira:

– Kulturaren sektorean txikizkako merkaturatzera bideratutako jarduerak (liburu dendak, musika dendak, argazki dendak, zinemak, etab.), bai eta hezkuntzaren esparruan profesionalei zuzenduta ez daudenak ere.

– Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

– Deialdi honetako modalitate berean parte hartzen duen beste onuradun batekin lotutako pertsonak edo erakundeak.

4. Aipatutako erakunde onuradunek, herri administrazioek izan ezik, egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritako moduan, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

Kultura Zuzendaritzak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak zerga betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, aldatua, azken xedapenetatik hama bigarrenean).

5. ETEen definizioak enpresa mota hauek hartzen ditu barne:

– Enpresa ertaina: 250 langile baino gutxiago, eta 50 milioi euroko negozio bolumena edo 43 milioi euroko balantze orokorra ez gainditzea.

– Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago, eta 10 milioi euroko negozio bolumena edo balantze orokorra ez gainditzea.

– Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago, eta 2 milioi euroko negozio bolumena edo balantze orokorra ez gainditzea.

6. Mikroenpresa kategorian duten elkarteei dagokienez, eta sektorearen espezifikotasuna kontuan hartuta, non forma juridiko oso desberdinak baitaude, enpresatzat hartuko dira jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten kultura egitura guztiak, Europar Batasunean onartutako Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinnaren arabera: "Enpresatzat hartuko da jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen erakunde oro, edozein dela ere haren forma juridikoa. Zehazki, enpresatzat hartuko dira artisau jarduera edo beste jarduera batzuk banaka edo familian egiten dituzten erakundeak, bai eta pertsonen sozietateak eta jarduera ekonomiko bat erregulatasunez egiten duten elkarteak ere", eta, beraz, beti enpresa errealtatatzat hartu ez diren formula juridikoak integratuko dira beste laguntza orokor batzuetan, hala nola sozietate zibilak, erantzukizun mugatuko sozietateak, elkarteak eta kooperatibak. Beraz, jarduera ekonomikoa da, hau da, produktuak edo zerbitzuak prezio jakin batean edo merkatu zuzen edo jakin batean saltzea, enpresa izaera zehazten duena.

Deialdi honetan xedatutako ondorioetarako, jarduera ekonomikotzat joko da kultura adierazpenei lotutako produktuak edo zerbitzuak sortzea, izaera profesionala eta irabazi asmoa dutenak.

Deialdi honen ondorioetarako, profesionaltasuna gertatuko da jarduera garatzen duen taldeko kideek sektorean ezarritako hitzarmen edo erabilerekin bat datorren ordainsaria dutenean, eta inoiz ez lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa.

Hori dela eta, deialdi honetatik kanpo geratuko dira elkarte amateur guztiak, baldin eta elkarte horietako kideek ez badute inolako ordainsaririk jasotzen, agiri bidez egiaztatuta, garatutako jarduerarengatik.

Era berean, deialdi honen ondorioetarako, irabazizko izaeratzat edo merkataritza izaeratzat joko da merkatuarekin bat datorren kontraprestazio ekonomikoa duen produktu edo zerbitzu sorkuntza.

5. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Kultura eta Kirol diputatuari zuzendutako eskabideak honela aurkeztu ahal izango dira:

– Eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– Bide elektronikoak erabilia, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Nolanahi ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen duena aplikatuko da.

2. Eskabideak deialdi honen III. eranskineko eredura egokitu beharko dira. Eredu horretan zehaztuko da zein laguntza modalitate eskatzen diren. Modalitateak ez dira bateraezinak elkarren artean; beraz, erakunde bakoitzak eskabidea aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzean.

Proiektuak eta ekitaldiak diseinatzeko edo berriz diseinatzeko azpiegituren eta ekipamenduen arloko gastuak diruz laguntzeko laguntzen modalitatean, erakunde onuradun bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza.

3. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Kultura Zuzendaritzako laguntza eskabide ereduan harremanetarako identifikatutako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

6. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

7. artikulua. Organo eskudunak eta ebazpena

1. Prozedura bideratzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritza izango da.

2. Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kultura Zuzendaritzak izendatutako hiru pertsona, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko langileen arteko aukeratuak.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko teknikari bat, hizpidea izango duena baina hautespiderik ez.

3. Dirulaguntza mota bakoitzerako, Balorazio Batzordeak, dirulaguntza emateko/ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua. Zerrenda hori erabiliko da onuradunek emandako laguntzari uko egiten badiote edo laguntza onartzen ez badute.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak, instrukzio organoak proposatuta, eman beharreko ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

6. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berariazko ezespena.

7. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

8. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen Legeak 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa); horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

8. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo Kontu-hartzaileak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dute.

c) Arabako Foru Aldundiak eskatzaileei aurkeztutako dirulaguntza eskaria baloratzeko egokitzat jotzen dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie.

d) Deialdi honen laguntza modalitate bakoitzerako ezartzen direnak eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kargurako laguntzak eta dirulaguntzak jasotzearen ondorioz ezarritako gainerako betebeharrak eta zereginak.

e) Egiaztatzea baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin duela.

f) Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak.

9. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sail honetatik helburu bererako lortutako beste batzuekin; eta bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatutik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik edo Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuetatik jasotakoekin, betiere diruz lagundutako kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Muga hori lortzen bada, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntza edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

10. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga balio balioki-dea duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, edo eraginkortasun administratiboa dutenak, jatorrizkoan edo fotokopia konpultsatuan. Bestalde, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu direla egiaztatu beharko da.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiri edota fakturak:

- Jaulkitzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Era berean, PEFZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuak justifikatzeko.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren pertsona edo erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Erosketa txartel originalak, horien bidez zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak (merkataritza gune mota, autobidea, bidai txartelak, etab.) edo faktura originalak, faktura jaulki duen enpresaren zigiluarekin, horiek ordaindu direla zehazten dutenak.

Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketen zenbatekoa, baldin eta ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaloa atzerriko metan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Laguntzak justifikatzeko dokumentazioa elektronikoki aurkezten bada Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eskuragarri dagoen Erregistro Elektronikoan, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera gainerako erregistro elektronikoen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, jatorrizko egiaztagiria gordailutzeari buruzkoa. Adierazpen horretan adierazi beharko da emandako laguntza justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa (gastuaren eta ordainketaren egiaztagiria) bat datorrela zintzoki jatorrizko dokumentazioarekin, zeina erakundearen legezko egoitzan baitago. Adierazpen hori erakundearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

Instrukzio organoak, deialdietan erabakitako laginketa tekniken bidez, egokitzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatu diren jatorrizko gastuen eta ordainketen egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

11. artikulua. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, bere II. tituluko I. kapituluan aurreikusten duenarekin bat etorritu egingo da.

12. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.

13. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren webgunean jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

II. Kapituluak. Gastu arrunterako laguntzak

Jarduera ekonomikoa erregulatasunez aurrera eramaten duten Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe kultura eta sormen sektoreko profesional autonomoen, ETEen eta mikroenpresa kategoria duten elkarten gastu arrunterako laguntzak.

14. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta epea

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

a) Jarduera egiten den lokalaren alokairu gastuak, betiere eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada eta errentatzailearekin odol edo ezkontza ahaidetasunezko 2. mailarainoko ahaidetasunik ez badago, eta errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez bada. Coworking guneak, sorkuntza fabrikak edo sorkuntza eta ekoizpen jarduerak garatzeko bestelako egiturak alokatzearen ondoriozko errentamenduak onartzen dira.

- b) Lan jarduerarako material teknikoak eta garraio ibilgailuak alokatzearen kostua.
 - c) Jarduera egiteko erabiltzen den lokala erosteko eskatutako hipoteka maileguen edo mailegu pertsonalen kuotak (amortizazioa + interesak), betiere eskatzailearen etxebizitzaren zatia ez bada.
 - d) Lan lokalen hornikuntzak (energetikoak, ura, telefonoa, Internet), baldin eta errentatzailearekin odolkidetasunezko edo ezkontza ahaidetasunezko 2. mailara arteko ahaidetasunik ez badago, eta errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkidea edo partaidea ez bada.
 - e) Profesional independenteen zerbitzuak (gestoria, aholkularitza, aholkularitza), auditoretzetatik eratorritakoak izan ezik.
 - f) Ohiko jarduerari loturiko aseguruaren kuotak.
 - g) Kultura arloko elkarte profesionaletako kide egitearen gastuak.
- Inola ere ez dira diruz laguntzeko modukotzat hartuko langileen gastuak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak, zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean, ez eta fakturan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ere.

2. Epea:

Oro har, aurreko paragrafoan jasotako gastuak hartuko dira kontuan, hain zuzen 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko epeari dagozkionak.

15. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Dirulaguntzaren eskabidea III. eranskinean jasotako eskabide inprimakiarekin batera aurkeztu beharko da. (Eskabide ereduak).
2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - a) Erakundearen IFKren kopia edo NANaren kopia, profesional autonomoaren kasuan.
 - b) EJRren epigrafea egiaztatzen duen dokumentuaren kopia.
 - c) Enpresa eratzeko eskrituren kopia.
 - d) Ahalorde horiek dituen pertsonaren ahalorde askietsia eta NANA.
 - e) Diruz lagundu daitezkeen gastuen zerrenda sailkatua, enpresa hartzekoduna (IFZ eta izen soziala), fakturaren jaulkipen data, kontzeptua eta zenbatekoa (BEZik gabe) identifikatuta, III. eranskinaren arabera (eskabide orria).
 - f) Egindako gastuaren/gastuen faktura(k) eta diruz lagun daitezkeen gastuak ordaindu izanaren banku egiaztagiririk.

Ez da onartuko banku ordainagiririk, baldin eta ordainagiri horrek ez baditu argi eta garbi jasotzen enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola.

 - g) Errentamendu kontratuaren kopia.
 - h) Enpresen zinpeko deklarazioa, baldin eta aurkeztu behar badute deialdi honetako 4.2.a artikulua ezarritakoaren arabera. Zinpeko deklarazioan jasotako alderdiak baliozkotzeko egokitzat jotzen den beste edozein agiri eskatu ahal izango da.
3. Eskabidean jarri beharreko datuen bat edo aurreko paragrafoan zerrendatutako nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

16. artikulua. Dirulaguntzaren ehunekoak eta gehieneko zenbatekoa

Diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 100 diruz lagunduko da, eta eskatzaile bakoitzari eman beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da.

Laguntzak emateko prozedura hainbanatze modalitateko norgehiagoka prozedura denez, hainbanaketa egiteko, eskuragarri dagoen zenbateko osoa, 334.800 euro, onartutako eskabide guztien artean banatuko da, onuradun bakoitzari legokiokeen gehieneko laguntza oinarri hartuta, eta eskatzaile bakoitzeko 6.000 euroko gehieneko laguntza kontuan hartuta.

17. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Emandako laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdiaren ebazpena eman ondoren, eta 10. eta 14. artikuluetan adierazitako moduan justifikatu ondoren.

III. Kapituluak. Inbertsioetarako laguntzak

Ondasun inbertariagarrietan inbertsioak egiteko laguntzak, jarduera ekonomikoa erregulartasunez egiten duten Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak kultura eta sormen sektoreko profesional autonomoek, ETEek eta mikroenpresa kategorian duten elkarteek eginak.

18. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta epea

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

a) Erakunde eskatzailearen jardueraren ohiko eta behar bezalako funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasun higigarri inbertariagarriak eskuratzea.

b) Ondasun inbertariagarri ez materialak eskuratzea. Deialdi honen testuinguruan, aplikazio informatikoak baino ez dira diruz lagunduko.

c) Enpresaren berezko jarduera Covid-19ak ezarritako baldintzetara egokitzeko beharrezkoak diren ondasun higigarri inbertariagarriak eskuratzea.

Ondasun higigarri inbertariagarritzat hartuko dira honako ezaugarri hauek dituztenak:

– Suntsigarriak ez diren ondasunak erosteko egiten diren gastuak.

– Balio bizitza urtebetetik gorakoa izatea.

– Ondarea handitzen dutenak.

2. Aldia:

Oro har, aurreko atalean egindako inbertsioak hartuko dira kontuan, 2020ko urtarrilaren 1etik deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera bitarteko aldiari dagozkionak.

19. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Dirulaguntzaren eskabidea III. eranskinean jasotako inprimakian aurkeztu beharko da (eskabide ereduak).

2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakundearen IFKren kopia edo NANaren kopia, profesional autonomoaren kasuan.

b) EJZren epigrafea egiaztatzen duen dokumentuaren kopia.

c) Enpresa eratzeko eskrituren kopia.

d) Ahalorde horiek dituen pertsonaren ahalorde askietsia eta NANA.

e) Egindako inbertsioak eskuratu direla egiaztatzen duen faktura.

f) Egindako inbertsioen erosketaren banku ordainagiriak.

Ez da onartuko banku ordainagiririk, baldin eta ordainagiri horrek ez baditu argi eta garbi jasotzen enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola.

g) Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzak dirulaguntzaren froga-agirietan edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran azaldu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik onena ez denean, egindako aukera espreski arrazoitu beharko da memoria batean.

h) Enpresen zinpeko deklarazioa, baldin eta aurkeztu behar badute deialdi honetako 4.2.a artikulua ezarritakoaren arabera. Zinpeko deklarazioan jasotako alderdiak baliozkotzeko egokizat jotzen den beste edozein agiri eskatu ahal izango da.

3. Eskabidean jarri beharreko datuen bat edo aurreko paragrafoan zerrendatutako nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

20. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 80 diruz lagunduko da, eta eskatzaile bakoitzari eman beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 4.000 eurokoa izango da.

Laguntzak emateko prozedura hainbanatze modalitateko norgehiagoka prozedura denez, hainbanaketa egiteko, guztira erabilgarri dagoen zenbatekoa (250.000 euro) onartutako eskabide guztien artean banatuko da, eta gehieneko laguntzaren arabera ez da izando diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 80 baino gehiago, gehienez ere 4.000 euro eskatzaile bakoitzeko.

21. artikulua. Laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Emandako laguntza ordaintzea bakarrez ordainduko da, deialdiaren ebazpena eman ondoren, eta 10. eta 18. artikuluetan adierazitako moduan justifikatu ondoren.

Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

2021eko urtarrilaren 29rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

IV. kapitulua. Kultura jarduerak, programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo berriz diseinatzeko laguntza.

Kultura eta sormen sektoreko profesional autonomoek eta ETEek, kulturaren arloko elkarte eta fundazioek, Arabako Lurralde Historikoko administrazio publikoek eta Trebiñuko enklabeak sustatutako kultura jarduerak, programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamenduen arloko gastuei aurre egiteko laguntzak.

22. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta epea

Laguntza modalitate honetan, eskabide bakarra onartuko da erakunde bakoitzeko.

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Deialdi honen 4.2.b artikuluan adierazitako erakundeek sustatutako kultura jarduerak, programak eta ekitaldiak ekoizteko beharrezkoak diren azpiegiturak eta ekipamenduak alokatzeko gastuak lagunduko dira.

Jarduera, programa eta ekitaldi guztiak Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabe espazio irekietan egin behar dira.

Azpiegitura edo ekipamendu gastu horiek honako elementu hauen alokairukoak izan beharko dute:

- a) Hesiak.
- b) Jaimak.
- c) Karpak.
- d) Aulkiak.
- e) Eszenatoki estaliak edo estaligabeak.
- f) Moketa.
- g) Sorgailu elektrikoak.
- h) Eszenatokien hegala perimetralak.
